

## **DEKLARAZIO INSTITUZIONALA. HIESAREN KONTRAKO BORROKAREN MUNDUKO EGUNA DELA ETA**

Lasarte-Oriako Udaleko Bozeramaleen Batzarrak, HIESaren kontrako Borrokaren Munduko Eguna dela eta, aho batez adosten du honako deklarazio hau:

Parisko Deklarazioak dioten moduan, une historiko batean aurkitzen gara HIESari erantzuna emateko. Aurrerapen zientifikoei, aktibismo komunitarioari eta helburu komuneko konpromiso politikoari esker, HIESaren epidemiari mundu mailan 2030. urterako amaiera emateko benetako aukera dugu. Hiriek denbora luzea daramate lehenengo lerroan HIESari erantzuna emateko orduan eta orain posizio paregabe batean daude ekintza bizkorren aitzindari izateko, 2020. urtean 90-90-90 helburuak lortzeari begira: GIBarekin bizi diren pertsonen % 90ek beren egoera serologikoa ezagut dezatela; beren egoera serologikoa ezagutzen dutenen % 90ek tratamendua jaso dezatela; eta tratamenduan dauden pertsonen % 90ek karga birala ken dezatela.

GIBagatiko infekzio berri guztiak geldiaraz ditzakegu eta HIESarekin lotura duten heriotza guztiak ekidin, tuberkulosiagatiko heriotzak barne. Estigmarekin eta diskriminazioarekin amai dezakegu. Gure herritar guztiek izan behar dute GIBarekin eta tuberkulosiarekin lotura duten prebentzio-zerbitzuak, tratamendua, arreta eta sostengua jasotzeko aukera, biziak salbatzea lortzeko.

Elkarrekin lan egiten badute, mundu osoan oihartzuna izango duten neurri lokalak har daitezke hirietan. Gure irismena, azpiegitura eta giza ahalmena baliatuz gero, hirietan sortuko den etorkizuna bidezkoagoa, barneratzaileagoa, oparoagoa eta sostengarriagoa izango da herritar guztientzat, haien sexua, adina, egoera ekonomikoa edo soziala eta sexu-orientazioa kontuan izan gabe.

Parisko deklarazioa hiri handientzat pentsatua badago ere, herriok ezin gara handik kanpo gelditu, geure ahalmenen neurrian kolabora baitezakegu helburu horiek lortzen.

Horregatik guztiagatik, Lasarte-Oriako Udalak Parisko Deklarazioko konpromisoetan lan egingo duela hitzematzen du. Hauexek dira:

1. Hirietan HIESaren epidemiarekin amaitzea 2030. urterako.
2. Egiten dugun guztiaren erdigunean pertsonak jartzea.
3. Arriskuaren, erikortasunaren eta transmisioaren kausei aurre egitea.
4. HIESari ematen zaion erantzuna gizartea positiboki eraldatzeko erabiltzea.
5. Tokian tokiko premietarako egokia izango den erantzuna sortzea eta azkartzea
6. Baliabideak osasun publiko eta garapen integraturako mobilizatzea
7. Liderrak garen aldetik bat egitea.

Lasarte-Orian, 2015eko abenduaren 1ean.